

Gure produktua, batez ere 12-35 urte bitarteko gazte ikasleei zuzenduta dago, izan ere talde horretan ikusten da mugikorraren erabilera eta adikzio mailarik handiena. Hala ere, ez da soilik haientzat: mugikorra gehiegi erabiltzen duten edo kontrolatu nahi duten pertsona guztiek erabili dezakete. Hasieran, produktuaren salmenta Euskal Herrian kokatzea aurreikusi dugu, ingurune hurbilean merkatuaren erantzuna neurtzeko. Ondoren, proiektuaren arrakastaren arabera, salmenta Espainiako estatu osora eta, epe luzera, Europa mailara zabaltzea da gure helburua.